

**ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN
UDAL ARAUTEGIA**

LEZOKO UDALA

2025ko martxoa



AURKIBIDEA

ARRAZOEN AZALPENA

LEHEN TITULUA

- 1.artikulua.- Xedea
- 2.artikulua.- Aplikazio eremua
- 3.artikulua.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa
- 4.artikulua.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren helburuak

BIGARREN TITULUA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

- 5.artikulua.- Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak.
- 6.artikulua.- Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua
- 7.artikulua.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

II.KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

- 8.artikulua.- Erabiltzaileak zehaztea
- 9.artikulua.- Zerbitzuan sartzeko baldintzak
- 10.artikulua.- Erabiltzaileen eskubideak
- 11.artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

III.KAPITULUA.- ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1.ATALA.- ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

- 12.artikulua.- Eskatzaileen zerrenda
- 13.artikulua.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria
- 14.artikulua.- Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa
- 15.artikulua.- Izapidetzea
 - A) Beharrianen ebaluazioa
 - B) Gizarte Txosten proposamena
- 16.artikulua.- Ebazpena
- 17.artikulua.- Premiazko egoerak



2.ATALA.- ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA

18.artikulua.- Zerbitzuaren onespena

IV.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

19.artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa

20.artikulua.- Egokitzapena

V.KAPITULUA.- ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

21.artikulua.- Zerbitzua etetea eta iraungitzea

21.1 Zerbitzua aldi batez etetea

21.2 Zerbitzua iraungitzea

VI.KAPITULUA.- ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22.artikulua.- Prezio publikoa

23.artikulua.- Finantzaketa

24.artikulua.- Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

XEDAPEN INDARGETZAILEA

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

I.ERANSKINA: ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

II. ERANSKINA: EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA



ARRAZOIEN AZALPENA

Egungo Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren udal-araudiak, Gizarte Zerbitzuen 1996ko Legean ezarritakoari jarraiki onartutakoak, egokitzen du, azken urteetan legegintzan egin diren garrantzizko aldaketei dagokienez.

Bai Autonomia pertsonala sustatzeko eta mendetasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko **abenduaren 14ko 39/2006 Legea**, bai **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea** onartzeak ondorio nabarmenak izan ditu gizarte zerbitzuen alorrean.

Zehazki, **Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak** erantzukizun soziala duten gizarte-zerbitzuen sistema integratu bat ordenatu eta egituratzen du Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan, herritar guztiei gizarte-zerbitzuen euskal sistemako gizarte-zerbitzuak jasotzeko eskubide subjektiboa ziurtatzeko asmoz, prestazio edo zerbitzu bakoitzerako araututa dauden aipatutako sistemara sartzeko baldintza orokorren eta baldintza berezien barruan, eta horretarako:

22. artikuluan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen katalogoa definitzen du; horrek etxez etxeko laguntza zerbitzua barne hartzen du, eta zerbitzu horiek emateko eskumena udalei ematen die.

185/2015 Dekretuak, urriaren 6koak, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea garatzen duenak, aipatutako eskubide subjektiboa zedarrizten du, Gizarte Zerbitzuen Legearen katalogoan zehazten diren baldintzak, irizpideak eta prestazioetarako eta zerbitzuetarako sarbidea erregulatuz.

Esandako aldaketa arauemaileez gain, errealitate sozialean ere bilakaera bat antzeman dezakegu: adinekoen hazkunde demografiko mailakatua, bizi-itxaropena areagotzearen ondorioz, eta adin-piramidearen aldaketa gure gizartean. Familia-harremanetan ere aldaketak izan dira, gizarte-zerbitzuen babes eta garapenerako agente gisa. Haiek dira bizitza oso bat izateko beharrezkoak diren zerbitzuak definitzea sustatzen ari diren faktore garrantzitsuenetako bat, are gehiago mendetasun maila altua duten edo babes sozialik gabe dauden pertsonen kasuan.

Pertsonen beren mendetasun mailakatuak laguntzeko zerbitzuak nola eman pentsatu eta zehazteko, lehentasunezkoa da pertsona horiek ahalik eta denbora gehien beren etxean geratzeko nahia kontuan hartzea, bizitza osoan zehar izan duten erreferentziazko sare soziala mantenduz. Alabaina, etxebizitzaren inguruak, sarbideak, komunitateak dituen laguntza-zerbitzuek eta abarrek beste alderdi asko kontuan hartzea eskatzen dute, eta mendetasuna duen pertsonaren bizitza garatzeko aukerak mugatzen dituzte.

Mendetasun egoeran edo mendetasun egoeran egoteko arriskuan dauden pertsonen arreta emateko behar horrekin batera, egoera sozial konplexuak sortzen ari dira. Izan ere, zaugarritasun edo ahultasun sozialeko egoeran bizi diren familia batzuek, beren beharrezko oinarritzko arreta jaso dezaten, etxez etxeko laguntza behar dute.



Horrela, eguneroko bizitza jasangarriago egiteko, babes eta laguntza-zerbitzuak eskuragarri izateaz gain, zaurgarritasun edo ahultasun sozialeko egoerak jasaten dituzten edo mendetasun egoeran dauden pertsonak beren etxeetan eta komunitateetan haiek zaintzeko zerbitzua izatea ezinbestekoa da, askotariko beharrezaneitara egokitze eta denbora tarte ezberdinetan zatikatzeko gai izango dena, larrialdiak bere gain hartuko dituen eta zerbitzuaren beharretan eman litezkeen aldaketei bizkortasunez erantzun ahalko diena. Zentzu horretan, etxez etxeko laguntza Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari garrantzi estrategikoa duen zerbitzua da, elkarbizitzarako sostengua ematen baitio gizartearen eta familian. Izan ere, sostengu hori ezinbestekoa da pertsona askoren bizi-kalitaterako eta lan-bizitza eta familia uztartzeko, emakumeen kasuan bereziki. Erabiltzaileek eta beren inguruak, familiak zein auzokideek aintzat hartzen duten zerbitzua da, eta pertsona askoren bizi-kalitatea bermatzen du (adinekoak, mendetasun egoeran dauden pertsonak, familiaren zama handia duten pertsonak).

Xede horretarako, araudi honek 2017. urtean Gipuzkoako udalen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren artean Gizarte Zerbitzuen **Erakunde Arteko Mahaian adostutako** itunak jasotzen ditu, honako gaien inguruan; intentsitate malguagoak, zerbitzua emateko aukera zehaztea urteko egun guztietan, izaera mugatua, larrialdietako sarbide mota finkatzea eta profil ezberdinetara sarbidea izatea.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren araudiak ez du Administrazio honetan laguntza pertsonalerako beste zerbitzu batzuk hasteko aukera alde batera uzten, bide berritzaileak izan daitezkeenak pertsonen eta beren bizitzarako beharrezanaren artean oreka bat izateko; betiere, eskumena duen organoaren oniritzia izanda.

Horrenbestez, udal-araudi honek udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzurako sarbidea arautzen du, zerbitzura sartu nahi duten pertsonak balioetsi eta gero, behin zerbitzurako eskubidea aitortua izan zaienean eta arreta pertsonalizaturako plan bat landu denean.



LEHEN TITULUA

1. artikulua. Xedea

Arautegi honen xedea da Lezoko udalerriko Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua arautzea.

2. artikulua. Aplikazio eremua

Arautegi honek arautzen duen zerbitzua Lezoko udalerrian emango da, udalak gizarte zerbitzuen esparruan dituen eskumenen baitan.

3. artikulua. Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren definizioa

Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzua asistentzia eta prebentzio zerbitzu bat da, erabiltzaileei ahal bezain luzaro norberaren etxean bizitzen jarraitzeko laguntza ematean datzana; horretarako, etxeko laguntza edo/eta laguntza pertsonala eskaintzen zaie, etxean moldatzeko eta beren komunitatean txertatzeko, bakartzea saihestuz.

4. artikulua. Etxez etxeko zerbitzuaren helburuak

Zerbitzuak helburu hauek ditu:

- a) Autonomia galerari aurea hartzea, autonomiari eustea edo/eta autonomia galera konpentsatzea. Horretarako, laguntza partziala edo/eta erabatekoa emango da norberaren zaintzarako eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko edo/eta eguneroko bizitzako jarduera instrumentaletarako.
- b) Erabiltzaileen segurtasun sentipena indartzea.
- c) Beste zerbitzu batzuen esku-hartzea eska lezaketen beharrianak antzematea.
- d) Erabiltzaileak beren komunitatean integra daitezen bultzatzea eta bakartze edo/eta bazterketa egoerak saihestea.
- e) Norberaren etxean ahalik eta luzaroen eta bizi kalitate egokiarekin bizi daitezen ahalbidetzea, ahal den heinean; horrela, atzeratu edo saihestu egingo da ostatu zerbitzuetan edo egoitzetan sartu beharra.
- f) Erabiltzaileari laguntzen dion familia-gizarte sareko zaintzaileei laguntzea, eta zaintzari loturik dituzten eginbeharrak neurri batean arintzea, baldintza egokiak izan ditzaten beren garapen pertsonal, profesional eta sozialerako.
- g) Oro har, erabiltzaileaz arduratzen den zaintzaile nagusiaren ordezkari jardutea, tarteka, hura falta denean.
- h) Adintxikikoen zaintzan laguntzea, haien guraso edo tutoreek zaintza egokia ematerik ez dutenean.
- i) Hainbat faktore psiko-fisiko-sozialen ondorioz krisi egoeran dauden familien bizikidetzaren giroa hobetzea eta faktore horietatik eratorri ohi diren arriskuei aurea hartzea.



BIGARREN TITULUA. ETXEZ ETXKO LAGUNTZA ZERBITZUA

I. KAPITULUA – ZERBITZUAREN BAITAKO ETA ZERBITZUAZ KANPOKO PRESTAZIOAK, ALDAERA ETA EZAUGARRIAK

5. artikulua. Zerbitzuaren baitako eta zerbitzuaz kanpoko prestazioak

- 1) **INFORMAZIOA**: Erabiltzaileei beren eskubideei eta zerbitzuari buruzko informazio egokia eta nahikoa eskuratzeko aukera ematea, behar den denboraz eta behar den moduan.
- 2) **JARRAIPENAREN BALIOESPENA** Arreta Pertsonalizatuko Planaren aldian aldiko ebaluazioak egitea, kasuan-kasuan dagokion sakontasunaz.
- 3) **ETXKO LAGUNTZA**: Erabiltzaileei eguneroko bizitzako jardura instrumentalak egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa. Laguntza hori bereziki dagokie elikadurari, jantziei eta erabiltzailea bizi den etxeko instalazioen mantentze garbiketari, ongi antolatzen laguntzeko; prestazio honetan sartzen da, halaber, hala dagokionean, jardura horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa.

3.1. ELIKADURAREKIN loturikoak

- Otorduak antolatzea eta prestatzea, horretarako erabilitako ontzi eta tresnak garbitzea eta jasotzea barne
- Janaria erostea
- Erabilitako ontziak eta tresnak garbitzea eta lehortzea

3.2. JANTZIEKIN loturikoak

- Arropa etxean garbitzea
- Arropa lehortzen jartzea
- Arropa gainbegiratzea
- Arropa antolatzea eta gordetzea
- Arropa etxean lisatzea eta tolestea
- Arropa erostea
- Erabili beharreko elementu guztiak prestatzea eta jasotzea

3.3. ETXKO INSTALAZIOAK MANTENTZEAREKIN loturikoak

3.3.1. Etxea txukuntzea

- Gainaldeak produktu egokiekin garbitzea
- Erabilitako elementuak garbitzea eta jasotzea
- Hautsa kentzea
- Zorua garbitzea eta xurgagailua pasatzea
- Errezelak eta leihoak zabaltzea, etxea aireztatzea
- Komuna garbitzea
- Sukaldea garbitzea
- Zaborra zaintzea eta ateratzea
- Zerbitzuarekin hasteko beharrezko garbiketak
- Jabekideen erkidegoko espazioak garbitzea
- Ohea egitea eta oheko arropa aldatu eta arropa zikina kentzea



3.3.2. Beste jarduera osagarri edo ezohiko batzuk

- Higiene arazo larriak dituzten etxeetako garbiketa orokorra.
- Higiene eta osasungarritasun arazo larriak dituzten etxeak hustea eta garbitzea.
- Egoera bereziei erantzunez, zerbitzuaren helburuak lortzeko ezinbesteko jotzen diren beste jarduera batzuk gauzatu ahal izango dira, gizarte langintzako teknikariak hala proposatuz gero eta Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak jarduera horiek berariaz baimenduz gero.
- Ezohiko jarduera batzuk:
 - Armairuaren goiko aldeak: urtean bitan
 - Armairu barruan antolatu: urtean bitan
 - Sukaldeko armairu kanpokoak: hilabetean behin; barrukoak: urtean behin
 - Kortinak: urtean bitan
 - Lanparak: urtean bitan
 - Kristalak: hilabetean behin; leihoak hilabetean behin (repisak barne)
 - Manpara barrutik: urtean behin
 - Erabiltzen ez diren gelak: urtean bitan
 - Frigorifikoa (hilabetean behin)
 - Sukaldeko kanpana: hilabetean behin

4) LAGUNTZA PERTSONALA: Erabiltzaileei honako jarduera hauek egiteko laguntza partziala edo osoa eskaintzen dien prestazioa: a) zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea edo oheratzea norberaren garbitasuna eta higiene pertsonala, batetik bestera joatea, jatea edo oinarritzko beste funtzio batzuk; b) ingurunearekiko lotura ahalbidetzen duten jarduera instrumentalak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak. Barne sartzen da, hala dagokionean, jarduera horiek gauzatzeko beharrezko trebetasunen lanketa; c) lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua.

4.a. Zaintza pertsonalarekin loturiko beharrezko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak, bereziki, ohetik altxatzea eta oheratzea, norberaren garbitasuna, jatea eta janzten laguntzea edo oinarritzko beste funtzio batzuk;

4.a.1. MUGIKORTASUNAREKIN ETA INGURUNEAN MOLDATZEAREKIN loturikoak:

- Ohetik altxatzeko, oheratzeko edo eserlekutik altxatzeko laguntza, lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.
- Etxean nahiz etxetik kanpo batetik bestera mugitzeko laguntza (komunera, gela batetik bestera, eskolara, garraiora, eguneko zentroetara, osasun etxeetara joateko laguntza), lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego.

4.a.2. GARBITASUN PERTSONALAREKIN loturikoak:

Garbiketa eta higiene pertsonala (lagungarri teknikoak baliatuta, halakorik balego; azazkalak moztea, bizarra egitea, ilea garbitzea, azala hidratatzea eta arropak aldatzea).



4.a.3. JATEAREKIN loturikoak:

- Jateko laguntza
- Edateko laguntza
- Janaria berotzea
- Erabilitako tresnak eta ontziak garbitzea eta jasotzea

4.a.4. JANTZIEKIN loturikoak:

- Janzteko eta eranzteko laguntza
- Eguneroko arropa prestatzea

4. b) Jarduera instrumentalak, ingurunearekiko lotura ahalbidetzen dutenak, bereziki, komunikaziokoak (telefonoa erabiltzea, gutunak idaztea...) eta familiarengana eta komunitatearengana iristeko beharrezkoak.

Oro har, aurreko egitekoekin lotura duten aurretiko jarduerak, egiteko horiek gauzatzeko elementuak prestatzea edo/eta haietatik eratorritako jarduerak.

Bereziki, hala badagokio, edozein eginkizunetarako beharrezko trebetasunen lanketa.

4.b.1) Komunitatearekiko harremanarekin loturikoak:

Hurtzaindegi, ikastetxe, garraio, eguneko zentro, osasun etxe, komunitate-ekipamendu eta abarretara iristen laguntzea.

4.b.2) Ingurunearekiko komunikazioarekin loturikoak.

- Eskariak egiteko, gutunak jasotzeko, gutunen eta abarren edukia ulertzeko laguntza, etxean.
- Komunikazioa erraztea banketxeekin, osasun etxeekin...; errekurtsioak izapidetzea; dokumentazioa eskatzea eta entregatzea, etab.

4.b.3) OSASUNAREKIN loturikoak:

Medikuak agindutako botikak (ahotik hartzekoak) erostea, kontrolatzea eta behar bezala hartzen diren gainbegiratzea.

Medikuekiko hitzorduen kontrola eta jarraipena.

4.b.4) Zaintzarekin loturikoak:

Adintxikikoentzako zerbitzuetan, ingurune komunitarioan aritzeko laguntza eta adintxikikoaren zaintza gauzatzean suertatzen diren bestelako egitekoak.

4.c) Lagun egiteko eta paseatzera joateko zerbitzua. Akonpainamendu zerbitzua.

5. GIZARTE LAGUNTZA: gizarte zerbitzuen berariazko zerbitzua, berezkoa, zeinaren bidez pertsonak aukera duten profesional kualifikatu batekin beren kasa hobeto moldatzeko eta gizarteratzeko laguntza harreman batean parte hartzeko.



Erabiltzaileari aukera ematen dio bere egoera aztertzeko, bere autonomia eta gizarteratze maila mantentzeko edo hura garatzeko buruz zer helburu dituen zehazteko eta helburu horiek betetzeko erreferentziazko pertsona bat edukitzeko, zeinaren bidez ondorengo laguntza hauek jasoko dituen prozesuan zehar:

- a. instrumentala (baliabide eta beste sistema batzuetako zerbitzuetara nahiz laguntzako gizarte/familia sareetara –familia, lagunak, komunitatea– harreman sareetara iristeko informazioa, orientazioa eta bitartekaritza).
- b. emozionala (kaltea murriztea, sostengua, babes emozionala eta orientazioa krisi egoeretan...).
- c. hezkuntzako (eguneroko bizitzako eta gizarteratzea sustatzeko oinarrizko jarduerak, jardura instrumentalak nahiz jardura aurreratuak egiteko trebetasunak hartzea, jokabideak aldatzea...).
- d. harremanei loturikoa (entzute aktiboa, gizarte harremanak edo/eta harreman pertsonalak egiteko edo mantentzeko trebetasunak hartzea, harremanak egiteko aukerak sortzea).

Gizarte laguntzaren intentsitatea aldatu egin daiteke pertsonaren beharrianen arabera. Horrela, erabiltzailearen laguntza beharrianaren intentsitatea aldatzea ahalbidetuko duten ibilbideak planteatu litezke (betiere, kontuan harturik intentsitatea murriztea dela desiragarria).

6. ZERBITZUAZ KANPOKO JARDUERAK:

Ondorengo jarduerak etxeko laguntza zerbitzutik kanpoko zatia jotzen dira:

- Etxebizitza berean bizi arren, udal zerbitzu teknikoek zerbitzuaren onuradun jotzen ez dituzten pertsonen laguntza pertsonala.
- Etxebizitza berean bizi arren, zerbitzuaren onuradun jotzen ez diren pertsonak zuzenean mesedetzen dituen etxeko laguntza.
- Prestakuntza espezifiko eskatzen duten osasun arloko jarduerak, hala nola, indizioak jartzea, intsulina edo heparina ematea, tentsioa hartzea, zundak eta zarakarrak tratatzea, ezagutza espezifiko eskatzen duten botikak ematea eta horien antzerakoak.
- Etxean konponketa handiak egitea: margotzea, etab.
- Lehen atalean zehaztu ez diren garbiketa lanak egitea.
- Udaleko zerbitzu teknikoek prestatutako txostenean aurreikusten ez diren zeregin guztiak

6. artikulua. Zerbitzuaren aldaera: atsedenerako zerbitzua

Atsedenerako zerbitzua zaintzaile nagusiarentzat; mendekotasun egoeran edo egoera horretan egoteko arriskuan dagoen pertsona aldi batez EELZn sartuz edo zerbitzu horretan ordura arte eskaintzen zen laguntzaren intentsitatea aldi batez areagotuz.

7. artikulua. Etxeko Laguntza Zerbitzuaren ezaugarriak

Etxeko Laguntza zerbitzua onuradunak lo egiten duen edo/eta eguna igarotzen duen tokian (ingurunean) emango da, Lezoko udalerrian.



1) Laguntza emateko egunak

- Oro har, zerbitzua urte osoan emango da astelehenetik ostiralera bitartean, jaiegunetan izan ezik.

2) Zerbitzuaren intentsitatea

Zerbitzuaren denbora mugak erabiltzaileen beharrianen banakako ebaluazioaren arabera zehaztuko dira. Gehienez ere, hamabost orduko laguntza emango da. Gehieneko hori malgutasunez banatu ahal izango da, baldin eta profesionalen irizpideen arabera malgutasun hori beharrezkoa bada erabiltzaileak etxean jarraitzea errazten edo/eta ahalbidetzen duten zaintzak osatzeko edo/eta ordezkatzeko.

Orduak 15 minutu baino gutxiagokoak ez diren tarteetan banatuko dira, eta sarrera bakoitzean zerbitzuak gutxienez 30 minutuko iraupena izango du; fakturatutako ordu edo tarte bakoitza lanean egindako denborari dagokiola ulertuz.

3) Laguntzaren ordutegiak

Zerbitzuaren ordutegia malgua da; astelehenetik ostiralera 7:00etatik 22:00etara bitartekoa, hain zuzen.

- Laguntza pertsonalari dagokionez, udal teknikariek zehaztuko dute ordutegia, laguntza eskatzailearen ohiko ordutegiak eta beharrianak kontuan hartuta.
- Etxeko laguntzari eta gizarte laguntzari dagokien zerbitzuetarako, udal teknikariek zerbitzua ematen duen langileak duen ordutegiaren arabera antolatuko da arreta emateko ordutegia.

II. KAPITULUA.- ERABILTZAILEAK

8. artikulua. Erabiltzaileak zehaztea

Oro har, ondorengo profila izango dute zerbitzu honen erabiltzaileak: autonomia galeraren edo ahultasun egoeraren ondorioz, norberaren etxebizitzan bizitzen jarraitu ahal izateko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko laguntza –aldi batekoa nahiz iraunkorra– behar duten pertsonak edo/eta familiak.

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuak ezartzen duenari jarraituz, mendekotasun egoeran edo mendekotasuna jasateko arriskuan dauden pertsonen zuzendutako zerbitzua da etxez etxeko laguntza zerbitzua.

Honako pertsona edo/eta familia hauek ere izan daitezke etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak:

- Beren kasa moldatzeko zailtasunak direla medio eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak edo/eta jarduera instrumentalak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonak.
- Familiek zaindu ezin dituzten edo behar duten zaintza eta arreta eman ezin dieten adintxikikoak.



- Zama astunegia, harreman gatazkatsuak, gizarte egoera egongaitzak edo/eta gaixotasun fisiko edo/eta psikikoen ondoriozko arazoak dituzten familiak edo pertsonak, eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza partziala edo erabatekoa behar dutenak.
- Aldi bateko gaixotasun edo gaixotasun terminal batek jotako pertsonak, gaixotasunaren ondorioz eguneroko bizitzako jardueretarako beste norbaiten laguntza behar dutenak.
- Kasuaren arduradunaren iritziz eta haren irizpideei jarraituz zerbitzu honen arreta jasotzea dagokien pertsona edo/eta egoerak, Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak baimenduak.

Eskaria talde batek eginez gero, taldeko kide guztiek bete beharko dituzte zerbitzuan sartzeko baldintzak.

Zerbitzuaren titular bat izendatuko da, onuradun guztiak ordezkatzeko; titularra hil eginez gero, egoitza zentro batean sartuz gero edo bizitokia aldatuz gero, bizikidetzaren unitateko beste onuradun batek hartuko du titulartasuna.

Titulartasuna aldatzean, berriro ebaluatuko dira beharrianak, gizarte-familia egoera eta egoera ekonomikoa.

9. artikulua. Zerbitzuan sartzeko baldintzak

Aurrez aipatutako talde horietako bateko kidea izateaz gainera, honako baldintza hauek bete beharko ditu eskatzaileak:

9.1. Baldintza administratiiboak:

- Eskaria egiten den datan Lezoko udalerrian erroldatuta egotea, eta hartan erroldatuta jarraitzea. Teknikariek hala proposatuz gero, baldintza hau betetzetik salbuetsita geldituko dira senitartekoen etxeetan txandaka bizi diren pertsonak.

9.2. Beharrianari buruzko baldintzak:

- Dagokion etxebizitzan bizitzea, izan hura norberarena nahiz zaintzaile nagusi gisa diharduen senitarteko batena.
- Etxebizitzaren edo ingurunearen egoerak ez eragozteko edo zailtzea erabiltzailean egotea eta ez jartzea arriskuan erabiltzaile nahiz etxez etxeko langileak.
- Hala behar izanez gero, etxebizitzan baldintza egokietan bizitzeko behar adina laguntza izatea, EELZren prestazioarekin batera.
- Osasun edo gizarte-osasun erakundeetan iraunkorki arreta jasotzea eskatzen duen osasun egoeran ez egotea.
- Gaixotasun infekzio-kutsakor edo buru gaixotasun bat izanez gero, uko ez egitea dagokion tratamendua hartzeari.
- Jokabide asaldurarik izanez gero, etxez etxeko langileentzako arriskutsua ez izatea.

10. artikulua. Erabiltzaileen eskubideak



Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 9. artikulua arabera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak dira:

- EAEko hizkuntza ofizialetatik edozeinetan zerbitzua jasotzea.
- Zerbitzu ematea eta haren intentsitatea aldatzeko eskaria egitea
- Zerbitzuaren baldintzen aldaketan berri aldeztatik jasotzea.

11. artikulua. Erabiltzaileen betebeharrak

Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 19. artikuluan ezarritakoaz gainera, etxez etxeko laguntza zerbitzuaren erabiltzaileak behartuta egongo dira:

- Zerbitzuan parte hartzen duten profesionalen lana erraztera, haiek laguntzera eta zuzen eta errespetuz tratatzera.
- Egoera sozio-ekonomikoa balioesteko beharrezko dokumentuak gizarte langileari ematera eta balioespena nahiz jarraipeneko bisitak egiteko etxean sartzen uztera.
- Zerbitzua jaso bitartean gaixotasun infekzio-kutsakor bat harrapatuz gero, udal teknikariei horren berri ematera, etxez etxeko laguntzaileek hartu beharreko babes neurriak hartu ahal izan ditzaten.
- Osasun egoerak hala eskatuz gero, behar den orotan joatea osasun erakundeetara.
- Aurrez hitzartu gabeko inolako prestaziorik ez eskatzera, eta ez eskatzera, halaber, udal ebazpenak barne hartzen ez dituen pertsonentzako arreta.
- Etxez etxeko zerbitzuko langileak zerbitzua ematen ari diren bitartean etxean egotera, bestelako berariazko baimenik eta agindu teknikorik ezean.
- Zerbitzua etetea dakarten lekualdatzeen berri aldeztatik ematera.
- Udal teknikariei behar adinako aurrerapenaz jakinaraztera eskaintzen den zerbitzua ematean inolako aldaketarik eragin lezaketean bat-bateko gorabehera pertsonalak.
- Etxez etxeko langileen esku uztera esleitutako etxeko lanak egiteko eta laguntza pertsonala emateko beharrezko tresnak eta materialak.
- Etxez etxeko langileek beren egitekoak behar bezala ez betez gero udal zerbitzu teknikoei irregulartasun horien berri ematera.
- Dagokion epean ordaintzera emandako zerbitzu bakoitzari dagokion prezio publikoa/tasa, nahiz eskatzaileari egotz legezkirokoen arrazoiak direla medio gauzatu gabe gelditutako zerbitzuei dagokiena, baita zerbitzua aldi batez eten izanaren ondorioz zerbitzuaren erreserbari dagokiona ere.
- Udal zerbitzu teknikoei jakinaraztera bere egoera sozio-ekonomikoan gertatutako aldaketa adierazgarri oro.
- Udal langile teknikoei jakitera ematera prezio publikoa/tasa ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiari mendekotasunaren balioespena edo/eta ezgaitasunaren kalifikazioa egin dezan eskatzera.

Betebehar horietakoren bat huts eginez gero, zerbitzua eteteko edo iraungitzeko prozedura abian jarriko da, arautegi honetan araututako prozedurarekin bat etorrita.



III. KAPITULUA. ZERBITZUAN SARTZEKO PROZEDURA

1. ATALA. ESKATZAILEEN ZERRENDAN SARTZEA

12. artikulua.- Eskatzaileen zerrenda

Zerbitzuaren eskatzaileen zerrenda da zerbitzua esleitzeko lehentasuna antolatzen baliatuko den tresna. Lehentasuna, zerbitzuan sartzeari buruz I. eranskinean zehaztutako baremoa aplikatuz lorturiko puntuazioaren arabera finkatuko da.

13. artikulua.- Zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko eskaria

Arautegi honetan araututako etxez etxeko laguntza zerbitzuaren eskatzaileen zerrendan sartzeko, aldeztu aurretik eskaria egin behar dute interesdunek edo, hala dagokionean, bizikidetza unitateko kide guztiek, inprimaki formalizatua erabiliz. Ondoren, organo eskumendunari helaraziko zaio inprimakia, eskatzaileak sinatuta. Udalak xede horretarako berariaz gaitutako erregistroetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako moduan edo erregistroetan aurkeztu beharko da eskaria.

Interesdunak prozesuaren edozein unetan bertan behera utzi dezake eskaria, idatziz. Hala egingez gero, artxibatu egingo da espedientea.

Era berean, gizarte langileak txostena egin ahal izango du espedientea artxibatzen baldin eta eskatzaileak edo haren ordezkariak hitzez adierazten badu eskaria bertan behera utzi nahi duela.

14. artikulua. Eskariarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa

Eskariekin batera, honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- NANaren fotokopia, edo beste edozein nortasun agiri baliokiderena.
- Familia liburua, baldin eta bizikidetza unitatean 18 urtetik beherako adintxikikorik badago.
- Mendekotasun edo/eta ezgaitasunen balioespena, baldin eta beste autonomia erkidego batean egin bada eta espedientea oraindik Gipuzkoako Foru Aldundira aldatu gabe badago.
- Medikuntza txostena, gizarte zerbitzuek beharrezkoa dela iritziz gero.
- Osasun txartelaren fotokopia.
- Zaintzaren onuraduna adintxikikoa edo ezgaitasuna duen pertsona bat izanez gero, lege edo izatez, ordezkariaren egiaztatpena (adintxikikoak badira: familia liburua, gurasoen eta seme-alaben arteko neurrien edo tutorearen izendapenaren dokumentua; ezgaitasuna duten pertsonak badira: tutorearen izendapenaren ebazpena edo izatezko zaintzailearen dokumentua, ereduari jarraituz egina)
- Egoera ekonomikoari buruzko datuak (zerbitzuaren onuradun diren pertsona guztiei dagokien dokumentazioa).
 - Eskaria egin aurreko lau urteei buruzko ondasun higigarrien eta higiezinaren zinpeko aitortza.



- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko zergaren azken aitortpenaren fotokopia, edo, bestela, Ogasunaren ziurtagiria, eskatzaileak aitortpena egiteko derrigortasunik ez duela egiaztatzen duena (ez da agiri hori aurkeztu beharrik izango aitortutako azken ekitaldian Gipuzkoako zergaduna izanez gero).
 - Eskaria egiteko unean edozein kontzepturengatik jasotzen ari diren diru sarrerren egiaztatzea: pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazio publiko, pribatu nahiz atzerrikoak, nominak, enpresa jardueren etekinak, etab.
 - Kapital higiezinaren etekinengatik diru sarrerren ziurtagiria, halako etekinik balego.
 - Banku posizio eguneratuen eta kapital higigarriaren etekinen ziurtagiria.
 - Gipuzkoako lurraldetik kanpoko jabetzen katastro balioaren eta titulartasunaren egiaztatzea.
 - Ezarritako prezioari dagokion hileko ekarpena ordaintzeko erabiliko den banku erakundea eta kontu korrontearen zenbakia.
- Udaleko gizarte zerbitzuek interesekotzat jotzen duten beste edozein dokumentazio.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 8.3 artikulua aplikatuz, herritarrak salbuetsita daude aurreko agiriak aurkeztetik, baldin eta administrazioaren esku badaude. Xede horretarako, dagokion agiria noiz eta zer organoren aurrean aurkeztu zituzten adierazi beharko dute interesdunek. Udalak agiri horiek eskuratu ezin izanez gero, berriro eskatu ahal izango diote interesdunari horiek aurkezteko.

Bestalde, Lezoko Udalak, NISAE elkarreragingarritasun-nodoaren bidez edo informazio hori lortzeko gaitutako beste bitarteko baten bidez, beharrezkoak diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu interesdunek administrazioaren esku jarri dituzten datuei buruz. Horregatik, elkarreragingarriak izan daitezkeen datuak eskatzeari utziko zaio, baldin eta interesduna datu horiek erabiltzearen aurka agertzen ez bada; kasu horretan, dagozkion datuak edo dokumentuak aurkeztu beharko ditu. Arautegi honetan ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatze eta, hala dagokionean, zerbitzua finantzatzeko baldintza eta baliabide ekonomikoak egiaztatze besterik ezingo dira erabili datu horiek.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo akatsen bat badago, eskatzaileari 10 eguneko epea emango zaio dokumentazioa osatzeko edo antzemandako akatsak zuzentzeko. Hala egiten ez badu, eskariari uko egin diola ulertuko da.

Eskatzaileak bere egoera balioesterik nahi ez badu edo modu frogagarrian egiaztatzen ez badu, ulertuko da uko egiten diela itxaron zerrenda –halakorik balego– osatzeko baremoan bere egoera ekonomikoa kontuan hartzei, baita zerbitzua ordaintzeko eskaintzen diren laguntzei ere. Hala, zerbitzua jasotzeko ezarritako gehieneko tarifa ordaintzera behartuta egongo da.

Datuak faltsutzeak eta ezkututzeak zerbitzuaren eskatzaileak eskatzaile izaera galtzea ekarriko dute, horregatik egotz lekizkiokeen beste erantzukizun batzuen kalterik gabe.



15. artikulua.- Izapidetzea

Erabiltzaileen beharrianen ebaluazioa eta gizarte txosten-proposamena egiteko, Gizarte Zerbitzuen 12/2008 Legean bildutako zehaztapenak hartuko dira kontuan.

A) BEHARRIZANEN EBALUAZIOA

- Balioespena eta ebazpen proposamena eskatzailearen etxebizitzari (edo, hala dagokionean, txandakako etxebizitzari) dagozkion udaleko gizarte zerbitzuetako gizarte langintzako teknikariek egingo dituzte.
- Langile teknikoek dokumentazioa aztertuko dute, eta elkarrizketak, etxeko bisitak eta egoera bakoitzean zer beharrian dauden balioesteko egin beharreko izapide guztiak egingo dituzte.

B) GIZARTE TXOSTEN-PROPOSAMENA

Gizarte langintzako zerbitzu teknikoek arauzko gizarte txosten bat egingo dute, honako alderdi hauei buruz:

- Zerbitzuan sartzeko baldintzak betetzea eta eskaria aurkeztea.
- Hala dagokionean, baldintzak betetzetik salbuesteko proposamen arrazoitua.
- Eskatzailearen eta, hala dagokionean, bizikidetza unitatearen egoera pertsonal, familiar eta sozialak.
- Esku-hartzearen onuradunak, emango den zerbitzu mota, asteko ordu kopurua eta egunak, proposatzen den zerbitzuak barne hartzen dituen egitekoak eta haren iraupena.
- Hala dagokionean, ezohiko zerbitzuak emateko proposamen arrazoitua.
- Eskatzaileak zerbitzua jasotzeko ordaindu beharreko orduko prezioa.
- Hala dagokionean, zerbitzua ukatzeko proposamen arrazoitua.

16. artikulua. Ebazpena

Eskaria aztertu eta balioespena egin ondoren, udaleko organo eskumendunari helaraziko zaio, hark ebazpen arrazoitua eman dezan; ebazpen horretan, eskatutako zerbitzuan sartzea onetsi edo ezetsiko da.

Ebazpena emateko bi hilabeteko gehieneko epea dago eskaria udal erregistroren batean sartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori eten egingo da eskarien akatsak zuzentzea eskatuz gero; jakinarazpena egiten denetik eskatutakoa betetzen denera bitartean iraungo du etenaldiak, edo, hala badagokio, emandako epea igarotzen denean, edo Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzailearen autonomia balioesteko txostena eskatu behar zaionean, bestela, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako gainerako egoeretan ere.

Aurreko atalean aurreikusitako epean berariazko ebazpenik eman ez bada, eta ebazpena emateko derrigortasunaren kalterik gabe, eskaria ezetsi dela ulertu ahal izango da, eta interesdunak aukera izango du aukerako berraztertze errekurtsoa edo administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezartzeko.

Ebazpen positiboa izanez gero, honako alderdi hauek adierazi behar ditu:



- Eskaria zerbitzu eskatzaileen zerrendan sartzea.
- Prestazioaren onespina, honako hauek zehaztuz: zerbitzuaren iraupena, mota, intentsitatea eta kostua, baita onuradunari dagokion ekarpen ekonomikoa ere.

Ebazpen negatiboa izanez gero, eskaria ezesteko arrazoiak azaldu beharko ditu, eta honako kasu hauetan izango da bidezkoa:

- Arautegi honetako 9. kapituluan zerbitzuan sartzeari buruz adierazitako baldintzak ez betetzea.
- Eskatzaileak, bere kasa edo/eta senitarteko edo/eta beste baliabide pertsonalen bidez behar bezala estali ahal izatea eskarian argudiatutako beharrak.
- Zerbitzua emateko eskumena beste administrazio publiko batena izatea, prestazio motagatik edo eskatzailearen bizitokia kokatuta dagoen tokiagatik.
- Zerbitzua emateak erabiltzaileari nahiz zerbitzua ematen duten langileei arrisku fisikoak edo/eta psikikoak ekar diezazkiokeela balioestea.
- Behar bezala argudiatutako beste arrazoi batzuk.

Ezespenezko ebazpena lege ezarritako epeetan eta formalitateak betez jakinarazi beharko da, eta aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango da haren kontra organo eskumendunaren aurrean, baita zuzenean haren aurka egin ere, administrazioarekiko auzien jurisdikzio ordenaren aurrean, lege ezarritako epe eta baldintzetan.

Onespenezko ebazpena zerbitzua ematen duen erakundeari ere helaraziko zaio, hark ebazitakoa betetzen has dadin jakinarazpenetik 7 egun naturaleko epearen barruan.

17. artikulua. Premiazko egoerak

Aparteko izaeraz, premia larri edo muturreko premia duten kasuei erantzuteko, prestazioa berehala ematen hastea proposatuko dute udaleko gizarte zerbitzuek.

Premiazko egoerak dira:

-Aurreikusi ezin daitekeen egoera: onuraduna edo bere zaintzaile nagusiaren istripu edo bapateko gaixotasunaren ondorioz, gaixotasun terminal baten ondorioz, zaintza pertsonalarekin loturiko eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak behar direnean.

- Ospitaleko altak, baldin eta, Gizarte Zerbitzuetako teknikariak balorazioa egin ondoren, egiaztatzen bada etxean mantentzeko laguntza behar dela.

-Aurreko egoerez gain, gizarte zerbitzuetako arduradun teknikoek baloratzen dituzten egoerak. Beti ere, beharra muturrekoa eta larria baldin bada, zerbitzuaren arduradunaren txosten teknikoaren balioespina edukita.

Udaleko gizarte zerbitzuek jakinarazpena jasotzen duenetik 48 orduko epearen barruan zerbitzua gauzatzen hasiko dira zerbitzuko arduradun teknikoaren onarpenarekin.

15 egun naturaleko epean, gehienez ere, premiazko eskaritzat hartutako eskaria ohiko prozeduraren arabera izapidetuko da.



2. ATALA. ZERBITZUAREN ONESPENA ETA ZERBITZURAKO SARBIDEA.

18. artikulua. Zerbitzuaren onespena

I. eranskinean adierazitakoaren arabera jasoko da zerbitzuaren onespena.

IV. KAPITULUA. ZERBITZUAREN EGOKITZAPENA ETA JARRAIPENA

19. artikulua. Jarraipena eta ebaluazioa

Gizarte langintzako teknikariek jarraipen iraunkorra egingo dute zerbitzuak onuradunen beharrekiko duen egokitasunari buruz; jarraipen horren bidez, dagozkien aldaketak proposatuko dituzte, eta proposatutako helburuak lortzen ari diren ebaluatuko dute onuradunekin lankidetzan. Jarraipena egiteko, egoki irizten zaionean onuradunaren etxera bisitak egitea eta aldian-aldian etxez etxeko laguntzaileekin harremana izatea aurreikusten da.

Aldizkako ebaluazioak egin ahal izango dira, onuradunak hala eskatuta, zerbitzua ematen duen erakundeak hala eskatuta nahiz protokolo eta kontratuetan ezarritako moduan

20. artikulua. Egokitzaipena

Zerbitzuan sartu ondorengo hiru hilabeteak erabiltzaileak zerbitzuaren ezaugarri eta funtzionamendura egokitzeko alditzat hartuko dira. Erabiltzailearen erreferentziazko gizarte langileek edo/eta zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresetako profesionalek etengabe izango dute harremana erabiltzailearekin, gorabeheraren bat sortuz gero egokitzaipena lortzeko bilatu beharreko konponbideak bilatzeko.

Harekin batera irtenbideak bilatzen saiatu arren erabiltzailea zerbitzura edo zerbitzua erabiltzailerara egokitzeko zailtasunak daudela edo zerbitzuak erabiltzailearen beharrak behar bezala estaltzen ez dituela ikusiz gero, udaleko gizarte zerbitzuek proposamen bat egingo dute, zerbitzuari dagozkion langile teknikoek edo/eta zerbitzua kudeatzen duen enpresak aurrez egindako txostena kontuan hartuta.

Proposamen hori erabiltzaileari helaraziko zaio, eta 15 eguneko tartea emango zaio alegazioak aurkezteko.

Udaleko gizarte zerbitzuek, alegazioak aztertu ondoren, behin betiko proposamena egingo diote organo eskumendunari, hark ebazpen arrazoitua eman dezan. Erabiltzailea zerbitzutik ateratzea ebatziz gero, beste bide bat eskainiko zaio, halakorik balego.

V. KAPITULUA. ZERBITZUA ETETEA ETA IRAUNGITZEA

21. artikulua. Zerbitzua etetea eta iraungitzea.

21.1. Zerbitzua aldi batez etetea

Dagokion espediente bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzua aldi batez etetea erabakiko da,



interesdunak esateko duena entzun eta gero. Erabiltzaileari eta, hala dagokionean, zerbitzua ematen duen erakundeari emango zaie ebazpen horren berri, legeak ezarritako epe eta baldintzak beteta.

Arrazoi hauengatik etengo da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- 10. artikuluan erabiltzaileei ezarritako betebeharren batean huts eginez gero, hutsegite hori zerbitzua iraungitzeko arrazoia ez bada. Ofizioz abian jarriko da etena.
- 9. artikuluan ezarritako baldintzetakoren bat aldi baterako galduz gero. Ofizioz nahiz erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.
- Ezusteko arrazoiak direla medio erabiltzailea etxean ez badago, honako egoera hauetan, esaterako:
 1. Erabiltzailea erietxean ingesatzea.
 2. Erabiltzailea gizarte-osasun baliabideetan sartzea.
 3. Medikuariengana edo/eta tratamendua hartzera joan behar izatea.
 4. Senitartekoen etxeetan txandaka bizi izatearen ondorioz beste etxebizitza batera joan behar izatea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Etenaldia 3 hilabetekoa izango da, gehienez ere.

- 45 eguneko gehieneko aldian, honako egoera hauetan:
 - Oporraldia.
 - Etxeko laguntza eskatzea eragin zuten egoerak aldatzea eta laguntza behar izateko arrazoia desagertzea.

Erabiltzaileak hala eskatuta abian jarriko da etena.

Profesionalen aburuz egokia izanez gero, luzatu egin ahal izango dira epe horiek.

Zerbitzua eteteko arrazoia erabiltzailea etxean ez egotea bada eta zerbitzua eteteko finkatutako epea igarota erabiltzailea etxera itzultzen ez bada, zerbitzua iraungi egingo da.

21.2. Zerbitzua iraungitzea

Dagokion espedientea bideratu ondoren, organo eskumendunak ebazpena eman eta udaleko gizarte zerbitzuek hala proposatuta, zerbitzuaren bajak zehaztuko dira, interesdunak esateko duena entzun eta gero. Onuradunari eta zerbitzu emaileari emango zaie ebazpen horren berri.

Arrazoi hauengatik iraungiko da etxez etxeko laguntza zerbitzua:

- Erabiltzaileak uko egitea.
- Zerbitzua emateko aurreikusitako epea amaitzea.



- Erabiltzailearen heriotza.
- Erabiltzailea beste udalerrri batera lekualdatzea, senitartekoen etxeetan txandaka bizi denean izan ezik.
- Erabiltzailea beste baliabide edo programa batean sartzea.
- Zerbitzua emateko arrazoia desagertzea.
- Zerbitzua emateko kontuan hartu beharreko datuak ezkutatzeko edo faltsutzea.
- Zerbitzuan sartzeko eskatutako baldintzaren bat betetzeari uztea.
- Zerbitzuaren jarraipenerako eskatutako dokumentazioa ez ematea.
- Egoera sozio-ekonomikoan aldaketaren bat gertatuz gero 30 eguneko epean horren berri ez ematea.
- Kasuaren arabera finkatutako aldi baterako etenaren epea amaitutakoan etxebizitzara ez itzultzea.
- Zerbitzua ematen duten langileei eraso fisiko edo psikologikoa egitea.
- Arautegi honetan ezarritako erabiltzaileen betebeharrak behin eta berriz huts egitea.
- Bizikidetzaren unitateko kideen eta gizarte langintzako teknikarien edo zerbitzua ematen duten langileen arteko lankidetzarik eza. Arrazoi hau argudiatzeko, alde aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.
- Erabiltzailearentzat nahiz zerbitzua ematen duten langileentzat arrisku fisikoak eta/edo psikikoak egotea. Arrazoi hau argudiatzeko, alde aurreko balioespena egin behar dute gizarte zerbitzuek.

Zerbitzua irautzitzeko ebazpena jaso ondoren erabiltzaileak berriro zerbitzua jaso nahi izanez gero, beste eskari bat egin beharko du, eta arautegi honetan zehaztutako moduan izapidetuko da.

Zerbitzua irautziz gero erabiltzaileak zerbitzuari dagokion ordainketaren bat egin gabe edukiz gero, berriro zerbitzua eman aurretik ordaintzea eskatuko zaio.

VI. KAPITULUA. ZERBITZUAREN ARAUBIDE EKONOMIKOA

22. artikulua. Prezio publikoa

Udalak kobratuko dituen prezioak Etxez Etxeko Laguntza zerbitzua esleitzean zehaztuko dira. Organo eskumendunak urtero eguneratuko ditu prezioak, hala dagokionean, zerbitzua esleitzeko baldintzetan zehaztutako igoeren arabera.

Zerbitzua ematen duten langileek, ezingo dute onartu inolako dohaintza edo ordainketa gehigarriarik, aurreko paragrafoan ezarritakotik kanpo. Lezoko Udalaren ardura izango da baldintza hori betetzen dela zaintzea.

23. artikulua. Finantzaketa

Zerbitzuak honela finantzatzeko dira:

- Onuradunak zerbitzua finantzatzeko parte hartu beharko du. Hain zuzen ere, bere gain hartu behar du bere ahalmen ekonomikoa kontuan hartuta organo eskumendunak



emandako ebazpenean ezarritako zenbatekoari dagokion ekarpena ordaintzeko konpromiso sinatua. Nahitaezko betebeharra izango da zerbitzua ematen hasteko.

- Lezoko udalak ordainduko du orduko prezioaren zenbatekoa, onuradunak ordaindu beharreko orduko ekarpena kenduta. Onuradunak ordaindu beharreko ekarpena II. eranskinean zehaztutako ekarpenen baremoaren arabera kalkulatu da.

24. artikulua. Zerbitzuaren erabiltzailearen ekarpena

Arautegi honetan araututako zerbitzuen erabiltzaileek zerbitzuaren kostuaren ehuneko bat ordaindu beharko dute; ehuneko hori kalkulatzeko, beren ahalmen ekonomikoa kontuan hartuko da, II. eranskinak dionaren arabera.

Ahalmen ekonomikoari buruzko datuak faltsutu edo ezkutatu gero, artxibatu egingo da zerbitzua jasotzeko eskaria, edo, erabiltzailea aldeztatik laguntza jasotzen ari bazen, iraungi egingo da zerbitzua, gertaera horietatik erator litezkeen erantzukizunen kalterik gabe. Udalak prezioa ordaintzeko laguntzaren bat edo hobariren bat eman badio erabiltzaileari, diru laguntzak banatzeari buruzko udal ordenantzan diru laguntzak itzultzeko araututako prozedura abian jarriko da.

Zerbitzuen erabiltzaileak eta, hala dagokionean, haien legezko ordezkariak behartuta daude familia unitatearen errentan, ondarean edo kideen kopuruan gertatutako aldaketak edo banakako ekarpenak zehaztean eragina izan dezakeen edozein gorabehera udalari jakinaraztera, 30 eguneko epean. Horren ondoriozko aldaketa ekonomikoek hurrengo hilabetean izango dute eragina.

Erabiltzaile bakoitzari dagokion banakako ekarpenak aldatzea eragin lezakeen aldaketaren bat gertatuz gero erabiltzailearen baldintzetan edo egoeran, ofizioz berrikusiko da ekarpena, udal zerbitzu teknikoek edo erabiltzaileak nahiz haren ordezkariak hala eskatuta, horri buruzko udal arautegian ezarritako moduan.



LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIA

Etkez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren bidez, erabiltzaileek beren etxe eta ingurune komunitarioan jarraitzeari begirako esperientzia/jarduera/prestazio berri eta berritzaileak abian jarri ahal izango dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegiaren laburpen bat prestatuko da, erabiltzaileei banatzeko.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi hau Etkez Etxeko Laguntza zerbitzua jasotzeko eskari berri guztiei aplikatuko zaie.

XEDAPEN INDARGETZAILEA

Indargabe gelditzen dira arautegi honetan xedatutakoarekin kontraesaneari dauten edo haiei kontra egiten dieten maila bereko nahiz apalagoko arau guztiak.

AMAIERAKO LEHEN XEDAPENA

Alkatetzari ahalmena ematen zaio arautegi hau aplikatu eta garatzeko eman beharreko arauak eman ditzan.

AMAIERAKO BIGARREN XEDAPENA

Arautegi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost egunera sartuko da indarrean.



I. ERANSKINA

ZERBITZUAN SARTZEKO BAREMOA

Sartzeko baremoak eskatzaileen zerrenda ordenatzeko irizpideak eta diagnostiko sozialaren arabera zerbitzurako sarbidea izateko lehentasunak finkatzen ditu.

Zerbitzuan sartzeko baremoari dagokionean, eskatutako zerbitzuak pertsona bati baino gehiagori eragiten badie, laguntza beharrian handiena duen eskatzailearen egoera baino ez da aztertuko, egoera ekonomikoaren alderdiari dagokionez izan ezik; hain zuzen ere, egoera ekonomikoa zehazteko, bizikidetza unitateko kide guztien per capita errenta kontuan hartuko da.

BAREMOAREN EGITURA:

ALDERDIAK	PUNTUAZIO TARTEAK
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Oinarrizko jarduerak)	<u>0-30</u>
Eguneroko bizitzako jarduerak egiteko laguntza beharra (Jarduera instrumentalak)	<u>0-10</u>
Bizikidetza eta gizarte sostengua	<u>0-20</u>
Etxebizitza edo bizitokia	<u>0-10</u>
Egoera ekonomikoa	<u>0-30</u>
Guztira	<u>0-100</u>

I. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (OINARRIZKO JARDUERAK)

Pertsonen beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeki eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako oinarrizko jardueretarako (jan, jantzi, norberaren garbitasuna...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Balioespen horretarako, MBBn lortutako puntuazioa erabiliko da, jarraian adierazten den moduan:

Laguntza beharraren BAREMOA	Puntuak	
Balioetsi ezinezkoak	0	☐
MBB 0-22 puntu	5	☐
MBB 23-49	10	☐
MBB 50-74	20	☐
MBB 75-100	30	☐
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (OINARRIZKO JARDUERAK) (30 puntu gehienez)		



II. EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERAK EGITEKO LAGUNTZA BEHARRA (JARDUERA INSTRUMENTALAK)

Pertsonak beren autonomia maila mantentzeki eta sustatzeko eta beren ohiko ingurunean bizi kalitate onarekin bizitzen jarraitzeki begira eguneroko bizitzako jarduerak instrumentalki egiteko (etxetresna elektrikoak erabili, erosketak egin...) behar duten laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Jarduerak instrumentalki BAREMOA	Puntuak	
Etxetresna elektrikoak (garbigailua, mikrouhin labea, sukaldea, berogailua...) eta interkomunikazio sistemak (irratia, telefonoa, telebista) erabiltzea.	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Etxeko lanak (hautsa kentzea, erratza pasatzea, ontziak garbitzea, ohea egitea, oheko arropa aldatzea, xurgagailua, lisatzea...).	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Erosketak (elikagaiak, botikak, arropa, etxetresna elektrikoak...).	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Jana prestatzea (otorduak prestatzea, prestatutako jana berotzea).	BAI: 0	☐
	EZ: 1	☐
Ingurunean moldatzea (garraio publikoa erabiltzea, herrian egunez/gauz ongi orientatzea).	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
Izapide ekonomiko-administratiboak eta osasunekoak (dirua ateratzea, ordainagiriak moldatzea, medikuarenera joatea...).	BAI: 0	☐
	EZ: 3	☐
EGUNEROKO BIZITZAKO JARDUERETARAKO LAGUNTZA BEHARRAREN PUNTUAZIOA (JARDUERA INSTRUMENTALAK) (10 puntu gehienez)		

III. BIZIKIDETZA ETA GIZARTE SOSTENGUA:

Pertsonak bere beharrianak betetzeko duen laguntzaren zenbaterainokoa balioestea da xedea, eta honako aldagai hauen arabera egiten da balioespena:

- ☐ Bizikidetza egoera: Bakarrik edo norbaitekin bizi den. Adineko beste bizikide batzuekin (senitarteko edo lagunekin) edo bestelako senitarteko edo lagunekin bizi den.
- ☐ Sare informalik baduen ala ez, eta, edukiz gero, sare horretaz baliatzeko dituen aukerak (senitarteko edo/eta lagunak), eta sare horrek zer laguntza mota ematen dituen.

Baremo hau erabiliko da balioespena egiteko:

Gizarte-familiaren BAREMOA	Puntuak	
-----------------------------------	----------------	--



1.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona edo adintxikikoa, babesgabetasun/bertan behera uzte egoeran dagoena: tratu txar fisiko edo psikikoak, abusu ekonomikoa, bertan behera utzita edo oinarrizko arretako zabarkeria larriko egoera.	20	☐
2.- Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte laguntzarik gabea: ez duelako familia edo gizarte ingururik, ohiko zaintzaileak arrazoi objektiboak direla medio arretarik ematerik ez duelako, edo familia gatazka edo/eta desestrukturazio larria dagoelako. / Arrisku egoeran dauden adintxikikoa dituzten familiak.	16	☐
3.- Bakarrik bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sare oso murrizta izanik bere laguntza beharra estaltzeko inola ere aski ez diren aldian aldiko laguntza batzuk lortzen dituen. / Zama handia duten edo gizarte egoera egongaitzean dauden familiak.	12	☐
4 – Bakarrik bizi den pertsona (edo mendekotasuna/ezgaitasuna duen norbaitekin bizi dena), familia edo/eta gizarte sareak laguntza batzuk ematen dizkion arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	8	☐
5 – Beste norbaitekin (mendekotasuna duen norbaitekin) bizi den pertsona, familia edo/eta gizarte sarea eduki arren harengandik behar adinako laguntzarik jasotzen ez duena.	4	☐
6 – Bakarrik edo beste norbaitekin bizi den pertsona, erraz baliatzeko moduko familia edo/eta gizarte sarea duena.	0	☐
GIZARTE-FAMILIA EGOERAREN PUNTUAZIOA (20 puntu gehienez)		

IV. ETXEBIZITZAREN EDO BIZITOKIAREN EGOERA

Etxebizitzaren edo bizitokiaren ezaugarrien balioespena egitean datza, ikusteko zenbateraino baldintza dezaketen pertsona bere kasa moldatzea, ingurunearen kontrola, aukeratzeko ahalmena eta ingurune horretan laguntza edo/eta sostengua jasotzeko aukera.

Irigarritasuna, bizigarritasuna eta ekipamendua dira kontuan hartzen diren aldagaiak, honako baremo honen arabera:

<i>Etxebizitzaren edo bizitokiaren BAREMOA</i>		
IRISGARritasuna		
A. Eraikina, kanpotik	➤ Ez du irigarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak igo edo jaitsi edo arkitektura oztoporen bat gainditu behar du etxebizitzara iristeko // Herrigunetik urrun dago, eta oinarrizko baliabideetara iristeko zailtasuna du.	1
B. Eraikina, barrutik	➤ Ez du irigarritasun arazorik.	0
	➤ Eskailerak daude atarian, igogailura edo etxebizitzara iristeko, eta ez dago horiek saihesteko sistemarik // Ez du igogailurik.	1
C. Etxebizitza, barrutik	➤ Ez dago arkitektura-oztoporik.	0
	➤ Mugitzeko eta moldatzeko zailtasuna dakarten arkitektura-oztopoak daude, ez du segurtasun edo/eta egokitzapen neurririk.	2
IRISGARritasuna, GUZTIRA (A+ B+ C)		



BIZIGARRITASUNA		
➤	Ez du bizigarritasun arazorik.	0
➤	Mantentze egokia falta du.	1
➤	Egiturazko arazoak ditu (hezetasuna, komunik ez, sukaldarik ez; espazio aski ez; itokinak; instalazio elektriko eta sanitario kaskarra).	3
BIZIGARRITASUNA, GUZTIRA		

EKIPAMENDUA			
	BADAGO	BADABIL	
Sukaldea	☐	☐	
Ur berogailua/termoa/galdara	☐	☐	
Berogailua	☐	☐	
Garbigailua	☐	☐	
Hozkailua	☐	☐	
Telefonoa	☐	☐	
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion elementu guztiak ditu, eta ongi dabilta.			0
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu ditu, gutxienez, edo elementu guztiak izan arren baten bat ez dabil, baina konpontzeko aukera dago.			1
➤ Oinarrizko ekipamenduari dagozkion 4 elementu baino gutxiago ditu, eta/edo baten bat ez dabil eta ez dago erabiltzaileak konpontzeko edo berrezartzeko aukerarik.			3
EKIPAMENDUA, GUZTIRA			

ETXEBIZITZAREN EGOERAREN PUNTUAZIOA (10 puntu gehienez)	
--	--

V. EGOERA EKONOMIKOA

Egoera ekonomikoa balioesteko, errenta hartuko da kontuan. Lanbide arteko gutxieneko errentaren %230etik behera, diru sarreraren 10. maila bereizten dira, puntu gehienekotik hasi eta puntu gutxienekora:

<i>Egoera ekonomikoaren BAREMOA Per capita errenta</i>	<i>Puntuak</i>	
≤%75 LAGS	30	☐
>%75-78	27	☐
>%78-81	24	☐
>%81-94	21	☐
>%94-110	18	☐
>%110-125	15	☐
>125-140	12	☐



>%140-155	9	☐
>%155-170	6	☐
>%170-190	3	☐
>%190 LAGS	0	☐
EGOERA EKONOMIKOAREN PUNTUAZIOA (30 puntu gehienez)		



II. ERANSKINA

EKARPEN EKONOMIKOAREN BAREMOA

A) Onuradunen ahalmen ekonomikoaren kalkulua:

Honako elementu hauek balioetsiz kalkulatu da ahalmen ekonomikoa: errenta, ondarea eta onuradunen kopurua.

1. Errenta gisa ulertzen da onuradunak edo onuradunek honako bide hauetatik guztira jasotzen dituzten diru sarrera garbiak:

- Lanaren etekinak, barne direla pentsioak eta gizarte aurreikuspeneko prestazioak, edozein erregimenetakoak direla ere; aldi baterako edo bizi arteko errentak, eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta.
- Kapital higigarriaren nahiz higiezinaren etekinak.
- Enpresa edo lanbide jardueren etekinak.

Errenta kalkulatzeko, ez dira diru sarrera modura hartuko:

- Etxebizitza Prestazio Osagarria, PEKen titularrentzako etxebizitzaren osagarria eta Etxebizitza Legetik erator litezkeen laguntzak.
- Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko legetik eratorritako prestazio ekonomikoak.
- Seme edo alaba adintxikiko bat ardurapean edukitzeagatik Gizarte Segurantzako Institutuaren prestazio ekonomikoa.
- Lanbide zentro batean jardutegatik jasotako haborokin ekonomikoak.
- Aurretiko ohiko etxebizitza batetik alde egin behar izanez gero arkitektura-oztopoengatik edo salbuespenezko arrazoi batengatik (genero indarkeriaren biktima...), etxebizitza haren alokairutik jasotakoa, etxebizitza berria alokatzeko edo erosteko kredituaren gastuei aurre egiteko beharrezko zenbatekoraino (etxebizitza berriaren gastuaren zenbatekoa gainditzen ez duen parte). Zenbateko baten eta bestearen artean gaindikarik balego, diru sarrera giza hartuko da.

Diru sarrera guztietatik, honako hauek kenduko dira:

- Ebazpen judizial bidezko banantzeagatik konpentsazio pentsioen edo/eta gurasoen eta seme-alaben arteko neurriengatik ordainketa, halakorik balego; sarrera horiek kanpo uzteko, dagokien justifikazioa aurkeztu beharko da.
- Zerbitzuen aldibereko erabileragatik ekarpenak: erabiltzailea aldi berean laguntza edo lanbide izaerako beste gizarte zerbitzu baten onuraduna bada, urteroko bat kenduko da diru sarreretatik, laguntza izaerako beste



zerbitzuaren gaineko eskumena duen administrazioaren ebazpen bidez ezarritako ekarpenaren eguneko prezioaren arabera.

2. Ondarea onuradunen kapital higigarri nahiz higiezin guztia da, eskaria egin aurreko bost urteak kontuan hartuta; kanpoan geldituko da saldutako kapital higiezin, haren etekin ekonomikoa dagoeneko kapital higigarrian sartuta egonez gero.
 - Kapital higigarritzat jotzen dira: kontu korranteetako eta epe jakinerako kontuetako gordailuak; inbertsio funtsak eta pentsio funtsak; balore higigarriak; bizi aseguruak eta aldi bateko zein biziarteko errentak; arte objektuak, zaharkinak eta bestelako objektu baliotsuak.
 - Kapital higiezinat jotzen dira landa eta hiri izaerako ondasunak. Ohiko etxebizitza (garajea eta trastelekua barne) ez da ondorio hauetarako kapital higiezinat hartuko.
- Era berean, ez da zenbatuko ondare higiezin, baldin eta haren gaineko titulartasuna %100ekoa ez bada.
3. Bizikidetza unitatetzat hartuko da ohiko etxebizitzan bizi diren pertsona guztiek osatzen dutena.
 4. Libreki erabiltzeko kopurua

LIBREKI ERABILTZEKO KOPURUA

	%EAEAP	Kopurua
1.kidea	160%	960,00 €
2.kidea	60%	360,00 €
3.kidea edo gehiago	45%	270,00 €

B) Onuradunen ekarpena kalkulatzeko, orduko ezarritako prezioaren arabera:

1. Hurrengo taulan ezarritako gehieneko per capita ondarea gainditzen dituzten erabiltzaileek (Ohiko etxebizitza kontutan izan gabe. Ohiko etxebizitzatzat hartzen da ohiko bizilekua finkatuta duen bere titulartasuneko etxebizitza), ezarritako orduko prezio osoa ordaindu beharko dute. Ondarea kopuru horren berdina edo txikiagoa denean, 2. puntuan ezarritako prozedura aplikatuko zaio.

Kide kopurua	Gehinezko ondarea
1	50.000,00 €
2	70.000,00 €
3 edo gehiago	85.000,00 €



2. 1. puntuak aipatzen den gehienezko ondarea gainditzen ez duten erabiltzaileek errentaren arabera ekarpena egingo dute, ondoren deskribatutako baremoa irizpide hartuta:

EAEAP sarrerak	Ekarpena
EAEAR-ren $\leq 120\%$	1,5%
$>120\%-125\%$	4%
$>125\%-130\%$	8%
$>130\%-150\%$	15%
$>150\%-175\%$	24%
$>175\%-200\%$	35%
$>200\%-225\%$	48%
$>225\%-250\%$	61%
$>250\%-275\%$	74%
$>275\%-300\%$	87%
EAEAO-ren $>300\%$	100%

Zerbitzu motaren arabera, ondarea, errenta eta libreki erabiltzeko kenbatekoa, honela kontabilizatuko dira:

- Etxeko laguntza zerbitzua eta zerbitzu mistoa (etxeko laguntza + laguntza pertsonala). Elkarbizitza unitateko kide guztien diru sarrera garbiak.

- Laguntza pertsonaleko zerbitzua, onuradunaren diru sarrera garbiak. Ezkontzetan edo izatezko bikoteetan, bi pertsonen sarrera garbiak batu eta zati bi egiten da, eta zati bat bakarrik hartzen da kontuan.

Ondoren, aurreikusitako etxeko laguntza zerbitzuko ordu kopuruaren arabera erabiltzaileak hilean egingo duen diru ekarpena kalkulatu da eta bermatutako libreki erabiltzeko zenbatekoa aplikatu da.

Aurreko eragiketa egin ondoren ez bada libreki erabiltzeko diru kopurua bermatzen, aurreko diru sarrera tarteari dagokion ekarpen portzentaia aplikatu da libreki erabiltzeko diru kopurua bermatu arte.

Nolanahi ere, erabiltzaileak etxeko laguntza zerbitzuaren orduko prezioaren %1,5 gutxienez ordaindu beharko du.

D) Prezio publikoa

Hau da erabiltzaileei aplikatu dakiekeen gehieneko prezio publikoa:

Laneguneko ordua	15.-€
-------------------------	--------------

